

GASTEIZKO UDALA

LANGABEZIAN DAUDEN LAIMGILEEN FAMIUENTZAT, NOIZBEHINKAKO PRESTAZIO EKOIMOMIKOAK

Euskal Parlamentuko "Gizarte Zerbitzuei" buruzko Maiatzaren 20ko 6/1982 legearen arabera, "Udaletxeek gestionatu eta emango dizkiete noizbehinkako prestazio ekonomikoak" (16. Art.) premiazko egoeran dauden pertsonen.

Gasteizko Udaletxeak, Gizarte-Ongizate eta Osasun Institutu Municipalaren bidez, aipatutako 16. artikuluari lotzen zaizkion egitarau batzuk ezarri ditu 1985. urterako. 1984. urteko parte batean garatu izan dira guztiak, batzuk lehenagotik ere bai agian, beraz dagoeneko esperimentatu eta emaitza onak atera zaizkien egitarauak dira.

Hauetariko bost, langabezian dauden langile gasteiztarrenfamilei zuzenduak daude bereziki. Onuradunek baldintza batzuk bete behar dituzte, hiru orokor hauek nagusiki:

—Sarrerarik gabeko edo sarrrera oso murrizteko famili buru izatea.

—Udalan denbora batez errolatuak egotea.

—Langabezian dagoen langile izatea, hau da, langile bezala denboraldi batez kotizatu izatea.

Egitarau bakoitzak zehazten ditu dagozkion prestazioetarako eskubidea izate-

ko bete behar diren baldintzak. Prestazioak eman litezke salbuespen gisara (behin), hilero, nahiz hiru hilabetero, baina, beti ere, horiek ematea erabaki erazi duten egoerek berdin jarraitzen duten heinean. Egoera horiek berdin jarraitzen badute, luzatu ere egin daitezke prestazioak.

1985 erako bost egitarauak eta beren aurrekontuak hauek dira:

1. Etxebizitza egitaraua

Horrekin, etxebizitzako errenta ordain ez dezaketen familei laguntzen zaie. Egitarauak estaltzen du baita ere, prestamo hipotekarioak

Langabezian dauden langileen famiuentzako egitarauak	Aurrekontua
1. Etxebizitzaren errenta ordaintzeko laguntza.....	13.500.000
2. Mantenu laguntzak	1.500.000
3. Zerga municipalak ordaintzeko laguntzak.....	1.000.000
4. Textu liburuentzako bekak	2.000.000
5. Salbuespenezko edo premiazko prestazioak.....	2.000.000
GUZTIRA.....	20.000.000

ez ordaintzeagatik eratorritako korrituen ordainketa. Errentari dagokionez eta 1985erako, batezbeste hileroko 60 familiari 10.700 pezetako laguntza ematea, eta beste aparteko zenbait ordainketa egitea aurrikusten da, hala nola etxe utzerazpen eta antzekoak itzurtzeko laguntzak. Eta prestamo hipotekarioen ordaintze ezari dagokionez, 45 bat kasu espero dira, horretarako hileroko kantitatea errentena baino piska bat baxuagoa izanik.

Emandako kopuruen ordainketa ez zaio onuradunari egiten, baizik eta etxebizitzaren jabeari edo prestamu hipotekarioen kasuan, dagokion banketxeari.

2. Mantenu egitaraua

Egitarau hau etxebizitzaren egitarauarekin konbinatzen da, eta bere helburua familia onuradunekelikadura aldetiko minimoak betetzeko behar adina baliabide izan dezaten bermatzea da. Ematen diren laguntzen topeak Karitas-ek ezarririk dauzkanak berak dira, eta erakunde horren egitarauarekin koordinatzen dira, bikoiztasunik eta diskriminaziorik gerta ez dadin.

Seguraski egitarau horren bidez Institutuaren laguntza jaso duten familiak ez dira hogeitik gora izango 1985ean.

3. Zergen egitaraua

Zakar bilketa, ura eta estolderiagatik udal zergak ordaintzeko ematen diren la-

guntzak dira. Laguntza horren onuradun 100bat familia dira sei hilabetero. Horretaz gainera, kontribuziokoordinagiriarentitularra langabezian egonez gero, uraren kanon finkoa deskontatzen zaio.

Ordainketak Institutuak zuzenean egiten ditu Udalaren zergabilketa bulegoetan.

4. Liburuentzako bekak

Hezkuntza Sailak egiten duenetik aparte egiten den egitaraua da. Hezkuntza Sailetik bekak lortu ez dituztenei zuzenduak daude laguntzak eta horien zenbatekoa, laguntzak eskatu dituzten gurasoen seme-alabek egingo duten edo dituzten ikastaroekin adostasunean dago. Hezkuntza Sailak eskainitako laguntzen parekoak dira eta eskolaurretik hasi eta Lanbide Hezkuntza edo COU raino hedatzen dira.

Egitarau horrek, gutxi gora behera 170 familiari egiten dio mesede, familiak batezbeste hiru seme-alaba dutenak izanik.

5. Salbuespenezko edo premia- zko prestazioak

1984. urtean zehar, aparteko hainbat egoera hartu dira kontutan: ebakuntza kirurgikoak, langile autonomoen aseguru sozialaren kuota ordainkefa, etxebizitza galdu duten familientzako laguntza, erropa erosketa etab.

**M. de B. S. y S. Institutoko
Departamendu Teknikoa**